



- DEABRUAREN ABOKATUA -

“Obren epaile bakarria denbora da”

Ur Apalategi | Gure Gauzak S.A.

Aho inguruko bizarrek ez dute aho-bizarrekin zerikusirik.

Sustrai Colina

Argazkia: Dani Blanco

Hara, euskal literatur sistema ipurdi bistan utzi zuen frankotiratzailea!

Bizi eta sufritutako esperientziak literaturarako isuri nituen, baina literatura instrumentalizatu gabe. Zin dagit, halere, errealtateak liburua gainditzen duela egunero-egunero.

Normala inork argitaratu nahi ez izatea!

Liburuak izan zituen trabek liburua bermatu baino ez zuten egin. Pentsa, gerora jakin nuen liburua argitaratzeko ahaleginean zentsuratua izan zen argialetxe batek dirua eskaini ziola argialetxe txikiago bati, liburua argitaratzeagatik.

Zerrenda beltzera kondenatuta zaude?

Gaia ukitzen ez dudano, ez dut uste. Produktu ona eskaintzen badiet, komertzioa egiten segituko dute, nireekin liburu guztiekin bezalaxe.

Eskerrak Kirmen Uribek glamourra ematen diola euskal literaturari, bestela...

Sari horrek gehiago esaten du egungo espainiar literaturaren funtzionamenduaz eta beharrez, euskal literaturaren kalitateaz baino.

Inbidia sumatzen dizut...

Sariak joko sozialak dira eta merkatu literarioak funtziona dezan beharrezkoak dira, baina idazleak, bere baitan, ongi daki zein den obren epaile bakarria, eta hori ez da ez epaimahaia, ez salmentak, denbora baizik.

Zakurraren bibolinak! Esadazu orain ez zarela idazle profesionala, eta tar tar tar guztia...

Ez naiz ofiziokoa, ez, baina bereizketa hori alimaleko zozokeriatzat daukat, gure azpigarpen kulturalaren ondorio den konplexu bat gehiago. Literaturatik bizi diren eta literatura bizi duten idazleak bereizi beharko lirateke. Bide batez, jakizu hainbat eta hainbat maisulan ofiziokoa ez den jendeak idatzi dituela.

Izenik?

Tolkien lanbidez unibertsitario filologoa zen. Saizarbitoria soziologoa, Proust diruduna. Eta kontrako adibideak ere eman ditzaket, hots idazle profesionalak zabor literarioa kontainerkadaka ekoizten dutenak. Coelho eta Higgins Clark, kasurako, profesionalak dira.

Kasualitatez, ez zara unibertsitateko irakasle alfer horietako bat izango, ezta?

Gutxienez, lau lan dituen pertsona bezala ikusten dut nire burua, idaztea, irakastea, ikertzea eta editatzea. A, eta bide batez, eza gutzen ditudan unibertsitateko irakasle guztiak lanez itota bizi dira.

Alfer-alferrik, unibertsitateak zertarako balio duen ikusita...

Unibertsitatearen bokazioa ez da enpresan lan egiten irakastea, ikasleari gizaki gisa hobetzeko formazio intelektual eta humanoa ematea baizik. Ados, zure burua urkatzeko moduko irakasleak daude, baina beste batzuk bizitza aldatzen dizute. n